


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2006ko ekainean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko ekainetik 2006ko ekainera) eraikuntzaren kostuak %4,4 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,3ko igoera izan zuen 2006ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %4,4raino igo zen. Aurreko urteko abenduaren aldean, %4,5 igo da.

Urte arteko aldakintza-tasak, 1997-2006



Iturria: EUSTAT

2006ko ekainean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,5eko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: eraikuntzak %0,5eko igoera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibilaren lehengaien kostuek %0,4koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran argi ikusten da antzeko ibilbideak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %4,0 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %3,8.

Ekainean, prezioen hazkunde handienak, besteak beste, ondoko hauetan kontsumitutako lehengaietan eman dira: asfaltozko produktuak (%4,4), burdina eta altzairua (%1,9), metalezko tutueriak (%1,3) eta energia elektrikoa (%1,0). Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: olioak eta koipeak (%-1,0), beira (%-0,7), zementu artifiziala (%-0,2) eta erauzketa-agregakinak (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: asfaltozko produktuak (%19,4), energia elektrikoa (%18,3), petrolioaren eratorriak (%13,4), burdina eta altzairua (%9,6) eta lehergailuak eta gasak (%7,2). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2005eko ekainetik 2006ko ekainera) murriztu egin dira: karea, igeltsua eta eskaiola (%-0,5) eta zeramika-produktuak (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2006ko EKAINA.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	124,7	0,3	4,4	4,5
ERAIKINAK	124,6	0,3	4,4	4,5
OBRA ZIBILA	125,1	0,3	4,4	4,4
LEHENGAIEN KOSTUA	121,2	0,5	4,0	4,1
ERAIKINAK	121,3	0,5	4,0	4,2
OBRA ZIBILA	120,8	0,4	3,8	3,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>